



ETXEBIZITZA VIVIENDA

ARABAKO ERRIØXA-RIOJA ALAVESA

INKESTA OROKORRAREN ANALISIA

Arabako Errioxako Landa Garapen Elkartea

Asociación de Desarrollo Rural de Rioja Alavesa



AURKIBIDEA

1. TESTUINGURUA.....1-6

- Arabako Errioxako LGEn ekintzak.....1
- EAEko eta Arabako Errioxako datu demografikoak.....2-3
- EAEko eta Arabako Errioxako etxebizitzen datuak.....4-6

2. INKESTAREN EMAITZA OROKORRAK.....7-40

Etxebizitza aldatu behar dut (udalerrri barruan edo beste udalerrri batera).....9-20

- Etxebizitzaren ezaugarriak.....15-20

Galdera orokorrak.....21-40

- Udalaren/Administrazio batzarren ekimenak.....25-29
- Etxebizitza birgaitza.....30-34
- Etxebizitza eraikitzea.....34-37
- Eusko Jaurlaritzako etxebizitza zerbitzuak.....38
- Amaiera.....39-40

3. ONDORIO OROKORRAK

TESTUINGURUA

Nahiz eta Arabako Errioxako datu demografikoak ez diren Espainiako beste eremu batzuetakoak bezain eraisgarriak eta ezin dugun despopulazioaz hitz egin, biztanle gazte askok beren jatorrizko herriak utzi behar izan dituzte lan eta etxebizitza aukera hobeen bila.

Arabako Errioxako LGEa urteak daramatza etxebizitzaren gai korapilatsuari heltzen, honen inguruan dauden arazo nagusiak arintzen saiatzeko eta gazteei, eskualdeko biztanleorokorrari edo etorkizuneko bizilagunei etxebizitza eskuratzeko erraztasunak emateko.

ARABAKO ERRIOXAKO LGEaren EKINTZAK



2019

EIT HITZALDIAK: "Hirigune historikoetan etxebizitzak berreskuratzea/birgaitzea" izeneko proiektuaren barruan, elkarrekin 12 hitzaldi antolatu zituen eskualdeko hainbat udalerritan, 225 lagunen parte-hartzearekin. Eraikinen Ikuskapen Teknikoen (EIT) berezitasunen berri eman zen 50 urtetik gorako etxebizitzetarako.



2020

ELKARRIZKETAK UDAL ORDEZKARIEKIN: Eskualdeko 15 udaletako udal-ordezkariekin bildu ginen, beren herrietan gauzatzen ari ziren etxebizitza ekimenak edo etorkizuneko proiektuak ezagutzeko eta beren herriko etxebizitzaren egoerari buruzko diagnostiko pertsonala ezagutzeko.



2022

-

2023

ETXEBIZITZA ESKARIAREN DIAGNOSTIKOA ESKUALDEAN: Arabako Errioxako administrazio batzordeetako presidenteei elkarrizketa berbera egin diegu, eta, gainera, gure eskualdeko biztanleei zuzendutako etxebizitzari buruzko inkesta sortu dugu, gure herrietan etxebizitza aurkitzeko edo lortzeko urtez urte dituzten arazo nagusiak zeintzuk diren jakiteko.

Txosten honetan EAEko demografia- eta etxebizitza-datuak aztertuko ditugu, datu horiek eskualdera eramango ditugu, eta Arabako Errioxako LGEak sortutako etxebizitza-inkestan jasotako emaitza nagusiak aurkeztuko ditugu.


EAE-KO ETA ARABAKO ERRIOXAKO DATU DEMOGRAFIKOAK

Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren "Gazteei eta etxebizitzari buruzko txostena"-k baieztatzen duenez, biztanleriaren zahartze-fenomenoa gero eta nabarmenagoa da gure eskualdean eta Euskal Autonomia Erkidegoan.

Txostenak nabarmentzen du zahartze-prozesu hori eragiten duten bi arrazoi nagusiak **jaiotza-tasa txikiak** eta **emantzipazio-prozesu berantiarrek** direla.

Gazteen emantzipazioari dagokionez, 2010ean 35 urtetik beherako gazteen %**43,7a** emantzipatuta zegoen; 2021ean, berriz, ehuneko hori %**32,9**ra jaitsi zen. Jaitsiera hori zuzenean lotuta dago gazte horiek gaur egun dituzten **lan-baldintzekin**; izan ere, haien ezegonkortasun ekonomikoak zaildu egiten du etxebizitza bat erostea edo alokatzea: txostenaren arabera, gazteek merkatu libreko etxe bat erosteko egin beharko luketen ahalegin ekonomikoa **soldata garbiaren % 58,7a** da, eta % **54a** alokairuko etxebizitza bat nahi izanez gero.

1. Grafikoa: 15-29 urteko eta > 65 urteko biztanleriaren bilakaera demografikoa (EAE)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia eta EUSTAT

Lehen aipatutako guztiaren ondorio dira 1. grafikoan jasotako datuak. **Gazteen Euskal Behatokiaren** arabera, 2022an 15-29 urte bitarteko 310.443 gazte zeuden, Euskadiko biztanleria osoaren % 14,2a, EUSTATen datuen arabera. Duela 21 urte baino 155.569 gazte gutxiago dira, eta duela 12 urte baino 19.535 gutxiago.

Kontrara, ikusten dugu urteak igaro ahala 65 urtetik gorako biztanleriaren ehunekoa handituz doala.

Arabako Errioxara iritsita, lehen aipatu dugun bezala, datu demografikoak ez dira negatiboak, betiere datu orokorrak kontuan hartzen baditugu. Are gehiago, 2017. urteaz geroztik, Arabako Errioxako biztanleen kopuruak gora egin du, 2022. urtearen amaieran **11.736 bizilagun izan arte**.


2. Grafikoa: Arabako Errioxaren bilakaera demografikoa



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia eta EUSTAT

Biztanleria horren zatirik handiena eskualdeko 3 gune handienetan banatzen da: **Oyón-Oion** (3.551 biztanle 2022an), **Bastida** (1.604 biztanle 2022an) eta **Biasteri** (1.551 biztanle 2022an).

3. Grafikoa: 15-29 urteko eta 65 urtetik gorako biztanleriaren bilakaera demografikoa (Arabako Errioxa)



Iturria: EUSTAT (Euskal Estatistika Erakundea)

Hala ere, eta EUSTATen "**Panorama demografikoa**" txostenak islatzen duen bezala, azken urteotan Arabako Errioxako biztanleriak gora egin duen arren, datuek ehuneko handiagoak erakusten dituzte 65 urtetik gorakoen artean gazteen artean baino, "**horrek esan nahi du biztanleriaren hazkundeak ez duela beti bermatzen adinen egitura doitu denik**".

EAE-KO ETA ARABAKO ERRIOXAKO ETXEBIZITZEN DATUAK

EUSTATEk jasotako etxebizitzetarako buruzko datuak aztertuz gero, erakundeak "familia-etxebizitzak" eta "establezimendu kolektiboak" bereizten ditu lehenengo. Ondoren, familia-etxebizitzaren artean, 2 kategoria bereizten dira:




ETXEBIZITZA NAGUSIAK: urte osoan edo gehienez pertsona baten edo gehiagoren ohiko bizileku gisa erabiltzen direnak.



GAINERAKOAK: bigarren etxebizitzak edo urtearen zati batean bakarrik erabiltzen direnak, etxebizitza hutsak edo bestelako etxebizitzak.

4. Grafikoa: EAEko etxebizitzaren sailkapena motaren arabera - 2021




Iturria: EUSTAT (Euskal Estatistika Erakundea)

2021eko urtarrilaren 1ean EAEen **1.075.076** etxebizitza zeudela jasotzen du EUSTATEk. Kopuru horretatik, establezimendu kolektiboak **%0,1a** (1.122) dira eta gainerako **%99,9a** (1.073.954) familia-etxebizitzak. Azken horietatik **913.819** "etxebizitza nagusiak" dira (guztizkoaren **%85a**) eta **160.135** "gainerakoak" bezala katalogatutakoak (guztizkoaren **%15a**).

Azken talde horretatik, "gainerakoak" deiturikoetatik, Arabako Lurralde Historikoa da ehuneko txikiena duen erkidegoa: **Arabaren %17** (28.546), **Bizkaian %49** (78.461) eta **Gipuzkoan %33** (53.128).


5. Grafikoa: Arabako Errioxako etxebizitzaren sailkapena motaren arabera (2021)



Iturria: EUSTAT (Euskal Estatistika Erakundea)

Datu horiek gure eskualdera helduz gero, **Arabako Errioxan 9.373** etxebizitza daude guztira (horietatik 14 establezimendu kolektiboak dira eta 9.359 familia-etxebizitzak). EAEko etxebizitza guztien %0,87a soilik da, eta Arabako Lurralde Historikoaren ia %6a. Familia-etxebizitza horietatik, % 50.1 "gainerakoak" bezala katalogatutakoak dira.

6. Grafikoa: Familia-etxebizitzaren bilakaera demografikoa (Arabako Errioxa) - 2021




Iturria: EUSTAT (Euskal Estatistika Erakundea)

6. grafikoan ikus daitekeenez, EUSTATEk azken 12 urteetan dituen datuetan oinarrituta, "gainerakoak" sailkatutako etxebizitzaren kopuruak gora egin du gure eskualdeko etxebizitza nagusiek baino maila handiagoan.

• TESTUINGURUA • EAE-KO ETA ARABAKO ERRIOXAKO ETXEBIZITZEN DATUAK

7. Grafikoa: Familia-etxebizitzak udalerrika (Arabako Errioxa, 2021)




Fuente: EUSTAT (Instituto Vasco de Estadística)

Datu horiek banaka aztertuz gero, ikus dezakegu fenomenoaren eskualdeko ia herri guztietan gertatzen dela. "Gainerako" etxebizitzaren ehuneko handiena duen udalerrria **Bastida** bada ere, ia udalerrri guztietan, kategoria horretako etxebizitzaren ehunekoa %50era gerturatzen da.

Etxebizitza horiek denboraldi luzeak ematen dituzte hutsik, bai bigarren etxebizitza direlako, bai jenderik gabe daudelako, eta pixkanaka-pixkanaka hondatzen ari dira, ondoko eraikinei eta udalerriko arkitektoari eraginez. Arabako Errioxako etxebizitzaren batez besteko adina **58.5** urtekoa da, **familia-etxebizitza zaharrenak dituen Arabako bigarren eskualdea**.

8. Grafikoa: Eraikinen batez besteko antzintasuna udalerrika (Arabako Errioxa, 2021)



Fuente: EUSTAT (Instituto Vasco de Estadística)


Udalerrriak banan-banan aztertuta, 8. grafikoak adierazten digu etxebizitza "**gazteenak**" dituen udalerrria **Oyón-Oion dela (41.3 urte)**, eta, aldiz, **Biasteri** da eraikin zaharrenak dituen udalerrria, ez bakarrik Arabako Errioxan, baita EAEn ere (**94.7 urte**).

INKESTAREN EMAITZA OROKORRAK

Errealitate horren aurrean, eta Arabako Errioxako LGEak azken urteotan garatu dituen ekintzen jarraipen gisa, biztanleei zuzendutako inkesta sortu dugu eskualdeko etxebizitzaren egoera jasotzeko. Inkesta 2022ko azaroaren 11n atera zen, gure plataforma guztien bidez zabalduz eta udal eta administrazio-batzar guztietara eramanez.


2023ko apirilaren erdialdean, **119 erantzun** lortu ditugu, gaztelaniazkoak eta euskarazkoak kontuan hartuta. Hauek dira inkestaren guztizko emaitzak:

ZENBAT URTE DITUZU?



Adin-tarte guztietako erantzunak jaso ditugu, baina adierazgarriena **25-34 urteko gazteena izan da (gutzizkoaren % 44,5)**, inkestaren helburu nagusia.


ARABAKO ERRIOXAKO ZEIN UDALERRITAN BIZI NAHI DUZU?




Ez dugu **KRIPAN, LEZA, GORREBUSTO** eta **BURADON GATZAGAREN** erantzunik jaso.

• INKESTAREN EMAITZA OROKORRAK •

Gure eskualdean etxebizitzaren inguruan egon daitekeen egoera edo arazo bakoitza ahalik eta zehatzen jasotzeko asmoz, inkestak galdera-lerro desberdinak izan ditu. Galdera gehienak pertsona guztientzat komunak izan diren arren, horietako batzuk pertsonen % jakin batek bakarrik erantzun ditu, betiere esan dugun bezala, errealitate bakoitza islatzeko helburuarekin.

LEHEN MARKATUTAKO UDALERRI BEREAN BIZI AL ZARA?

Jasotako 119 inkestetatik, **%84a** bizi nahi duen udalerrri berean bizi da. Aldiz, **%16k** udalerriz aldatu nahi du, eta, logikoa denez, etxebizitzaz.

ZURE UDALERRIAN, ETXEBIZITZAZ ALDATU NAHI DUZU/BEHAR DUZU?

Bizi nahi duten udalerrian bizi diren pertsonetatik, **%49k** etxebizitza aldatu behar du edo aldatu nahi du, eta **%51k** ez. Hau da, ia erdiak arazoak ditu bere egungo etxebizitzarekin, eta aukera berri baten bila ari da.

Laburbilduz, jaso ditugun 119 erantzunetatik, **%57,1ek** etxebizitza aldatu behar du edo aldatu nahi du udalerrri berean edo eskualde barruko beste udalerrri batean.

• INKESTAREN EMAITZA OROKORRAK •


ETXEBIZITZAZ ALDATU BEHAR DUT (NIRE UDALERRIAN EDO BESTE UDALERRI BATEAN)

ETXEBIZITZAZ ALDATU BEHAR DUT (NIRE UDALERRIAN EDO BESTE UDALERRI BATEAN)

Lehenik eta behin, etxebizitza aldatu behar duten pertsonen egin dizkiegun galderak aztertuko ditugu, udalerrri berean edo kanpoan. Guztira, **68 pertsonaren erantzunak dira.**

Udalerrri barruan etxebizitza aldatu nahi dutenekin hasiko gara, 68 pertsona horietatik **49 erantzun**, hain zuzen ere.

ZEIN ERREGIMENETAN BIZI ZARA GAUR EGUN? (ZURE UDALERRIAN)




"BESTE BAT" LAUKIA (Erantzuna)

- "Gurasoen etxean"
- "Familia-etxea"
- "Senide baten etxea"
- "Senide baten etxe hutsa"

Bizi nahi duten udalerrian bizi direnen % **51a**, gurasoen etxean jarraitzen dute, eta, beraz, uste dugu aldatzeko behar hori independizatu nahi izatearekin lotuta dagoela.

%**16.3** "jabetzan" bizi da eta %**22.4** "alokairuan". Soilik %**2a** bizi da "erosteko aukera duen alokairuan", eta %**8,2k** egoera desberdina du ("beste bat" laukian zehaztua).

ZEINTZUK DIRA ZURE UDALERRI BARRUAN ETXEBIZITZA ALDATU NAHI EDO BEHAR IZATEKO ARRAZOIAK? (GEHIENEZ 3 AUKERA) (49 PERTSONA)



• INKESTAREN EMAITZA OROKORRAK •

ETXEBIZITZAZ ALDATU BEHAR DUT (NIRE UDALERRIAN EDO BESTE UDALERRI BATEAN)**"BESTE BAT" LAUKIA (Erantzuna)**


- "Pisua eta blokea egoera txarrean daude, etxejabeak ez du konpondu nahi eta ezin dugu 400 € baino gehiagoko alokairua ordaindu. Alokairuaren batez besteko prezioa 550 € da, eta gaur egun 875 €-ko diru-sarrera baino ez dugu.
- "Nire etxebizitza izan nahi dut"

Galderak 73 boto jaso ditu guztira, eta hauexek dira 49 pertsona horiek beren udalerrian etxebizitzaz aldatu nahi izateko arrazoi nagusiak:

- **"Nire lehen etxebizitza erosita independizatu nahi dut" - % 32k markatuta**
- **"Etxebizitzaren tamaina desegokia (txikia, handia...)" - % 25 markatuta**
- **"Alokairuko etxebizitza batean independizatu nahi dut" eta "arrazoi pertsonalak" - % 13k markatuta**

Boto gehien jaso dituzten aukeretako asko gurasoekin bizitzen jarraitzen duen eta independizatu nahi duen %51 horrekin zuzenean lotuta dagoela ikusten dugu, dela jabetzako etxebizitza batekin, dela alokairuko etxebizitza batekin; eta, bestetik, etxebizitzaren ezaugarriekin lotuta: tamaina.

Ikus dezagun Arabako Errioxan bizi ez direnek edo Arabako Errioxako beste udalerrri batean bizi nahi dutenek erantzun dutena (etxebizitza bila ari diren 68 pertsonetatik 19):


NON BIZI ZARA GAUR EGUN?

Gaur egun, %36,3a eskualdean bizi da, eta gainerako % 63,3a kanpoan, batez ere Logroñon eta Gasteizen.

• INKESTAREN EMAITZA OROKORRAK •

ETXEBIZITZAZ ALDATU BEHAR DUT (NIRE UDALERRIAN EDO BESTE UDALERRI BATEAN)

ZEINTZUK DIRA UDALERRIZ ALDATU NAHI EDO BEHAR IZATEKO ARRAZOIAK? (GEHIENEZ 3 AUKERA) (19 PERTSONA)



"BESTE BAT" LAUKIA (Erantzuna)

- "Ondorengoak"

Aurreko galderan 40 boto jaso ditugu, eta ikusten dugu arrazoi nagusiak beren udalerrri barruan etxebizitzaz aldatu nahi dutenen antzekoak direla. Berriz ere, independizatu nahi duten pertsonak eta alokairutik jabetzako etxebizitza batera pasatu nahi duten pertsonak aurkitu ditugu:


- **"Alokairuan bizi naiz, baina etxebizitza bat jabetzan nahi dut eta nire udalerrian ez dut aukerarik" - % 42k markatuta**
- **"Jabetzako/alokairuko etxebizitza batekin independizatu nahi dut, eta nire udalerrian ez dut aukerarik" - % 42k markatuta**
- **"Arrazoi pertsonalak" - % 31 markatua**

Hurrengo galderak, etxe berri baten bila dabiltzan pertsona guztiek erantzun dute, hau dau, 68 pertsonak:

• INKESTAREN EMAITZA OROKORRAK •

ETXEBIZITZAZ ALDATU BEHAR DUT (NIRE UDALERRIAN EDO BESTE UDALERRI BATEAN)


BEHARRAREN MAILA ETA DENBORA ("NIRE UDALERRIAN" BIZI NAIZ) (68 PERTSONA):



68 pertsona horiek beren udalerrian edo udalerritik kanpo etxebizitza bilatzen daramaten premia- eta denbora-mailari buruzko datuak batuta, **%36,8k** aldatzeko "premiaren bat" du, eta **%10,3k** soilik du "premia txikia".

Pertsona horiek etxebizitza bilatzen daramaten denborari dagokionez, **%36,8k 2 urte baino gutxiago** daramatza eta **beste hainbatek 2-4 urte bitartean**. Gure ustez, datu hori zuzenean lotuta dago inkesta gehien erantzun duen adin-taldearekin (25-34 urte) eta gaur egun dituzten lan-baldintza ezegonkorrekin.

ZURE UDALERRIAN/BIZI NAHI DUZUN UDALERRIAN JABETZAKO/ALOKAIRUKO ETXEBIZITZA-AUKERAK DAUDELA USTE DUZU?




Ikusten dugu etxebizitza bila ari diren 68 pertsonak (udalerrri barruan edo kanpoan) argi dutela erantzuna: **% 50ak** uste du erosteko aukera "oso gutxi" dagoela Arabako Errioxan, eta **% 47,1ak** uste du eskualdean "ez" dagoela alokatzeko aukerarik.

• INKESTAREN EMAITZA OROKORRAK •

ETXEBIZITZAZ ALDATU BEHAR DUT (NIRE UDALERRIAN EDO BESTE UDALERRI BATEAN)

"OSO GUTXI" EDO "EZ" ERANTZUN BADUZU, ZURE USTEZ, ZEINTZUK DIRA JABEEK BEREN ETXEBIZITZA HUTSAK EZ ALOKATZEKO DUTEN ARRAZOI NAGUSIAK? (GEHIENEZ 3 AUKERA)



"BESTE BAT" LAUKIA (Erantzuna)

- "Ez dago"
- "Eraikitzeke ezintasunaz baliatzen dira gehiegizko prezioak jartzeko"
- "Jendeak ez du konplikatu nahi. Etxebizitza asko egoera txarrean daude eta jabeek ez dute alokairu baxuko erreformekin zaildu nahi. Gainera, etxebizitza libre asko zaharrak dira, baina pertsona batenak baino gehiagorenak dira, eta zaila da jabetzaren banaketa egitea."
- "Erosotasunagatik eta ez behar ekonomikoengatik"
- "Ez dute alokairuaren beharrik/ez daude egokiak/Gehiegi eskatzen dute."
- "Behar ekonomikorik eza"
- "Hutsik dauden etxebizitzak zaharrak izaten dira normalean, eta zaharberritu egin behar izaten dira, nahiago izaten dute saldu".
- "Prezio altuak"
- "Jabe batek baino gehiagok heredatutako etxea"
- "Diru asko"
- "Ez dute dirurik behar, horregatik ez dute ez saltzen ez alokatzen"
- "Oso egoera txarrean daude"
- "DSBE kobratzeko ere etortzen dira hona bizitzera, etxeak txikitzen dituzte, ez dute ordaintzen, jabeek ergelkeria gehiegi eskatzen dituzte".
- "Ez dago emantzipatzeko etxebizitzarik, eta jendeak Logroñon eta inguruetan bilatu behar du, etxebizitza gehiago behar dira lehenbailehen".
- "Ez dute etxeak edo pisuak alokairuan jartzeko behar ekonomikorik"

Azter dezagun azken grafiko hori eta jasotako 119 botoak. Hauek dira boto gehien jaso dituzten 3 aukerak:


- **Saldu besterik ez dute egin nahi** - % 50,6 markatuta
- **2. egoitzak edo oporretakoak dira** - % 45,6 markatuta
- **Segurtasunik eza beren etxebizitzak ez zaintzeagatik** - % 33,8 markatuta

Nabarmenezkoa da "**beste batzuk**" laukiak ere boto asko jaso dituela, 17 zehazki (% 24,6 markatuta). Bertan, nabarmendu dute **jabeek ez dutela behar ekonomikorik** eta, horregatik, ez dituztela beren etxeak alokairuan jartzen; halaber, etxebizitzaren egoera txarra eta prezio altua; eta, azkenik, orokorrean dauden aukera apurrak.

• INKESTAREN EMAITZA OROKORRAK •

ETXEBIZITZAZ ALDATU BEHAR DUT (NIRE UDALERRIAN EDO BESTE UDALERRI BATEAN)

ZER BIDE ERABILI DUZU ETXEBIZITZA-AUKEREI BURUZ INFORMATZEKO? (GEHIENEZ 3 AUKERA)

**"BESTE BAT" LAUKIA (Erantzuna)**

- "Baztertu egin dut bilatzea, udalerria oso txikia delako"
- "Familia-etxea da"

68 pertsona horiek etxebizitza-aukerak bilatzeko gehien erabiltzen dituzten informazio-bideei dagokienez, jasotako 139 botoen artean, argi eta garbi 2 aukera nabarmentzen dira:


- **"Interneteko atariak": % 76,4.**
- **"Herriaren ahoz ahokoa" - % 61,8k markatuta**
- **Eta, azkenik, "Zonako higiezinak" - % 45,6k markatuta**

Harritzen gaitu planteatzen genituen aukeren artean, "**udala**" aukerak 10 boto soilik jaso dituela (etxebizitza bila ari direnen % 14,7).

ETXEBIZITZAREN EZAUGARRIAK

Ikus ditzagu orain zeintzuk diren etxebizitza ezaugarri bozkatuenak. Gogora dezagun 68 erabiltzaileen erantzunak aztertuko ditugula.

ETXEBIZITZAREN ... BATEN BILA ZABILTZA




"BESTE BAT" LAUKIA (Erantzuna)

- "Landetxe erabilia"
- "Eraikitzeke lursaila"
- "Lurzatian eraikitzea"

%66.2k ez du lehentasun zehatzik etxebizitza motari dagokionez. Azpimarratu nahi dugu 3 erabiltzailek aurreikusi ez dugun alternatiba bat markatu dutela: "**Norberaren lurrean eraikitzea**".

ZEIN ERREGIMENETAN BIZI NAHIKO ZENUKE?



"BESTE BAT" LAUKIA (Erantzuna)


- "BOE edo jabetzan"
- "Ezin dut etxe bat erosi"

• INKESTAREN EMAITZA OROKORRAK • ETXEBIZITZAZ ALDATU BEHAR DUT (NIRE UDALERRIAN/BESTE UDALERRI BATEAN)
ETXEBIZITZA EZAUGARRIAK

%58.8k etxebizitza "jabetzan" izatea bilatzen du. Ondoren, "berdin dio" aukera dago (% 14,7), "alokairua erosteko aukerarekin" eta "alokairuan" (% 8,8) eta, azkenik, "BOE" (% 5,9).

Ikus dezagun orain ea lehentasun horiek aldatu egiten diren, aukera ekonomikoak kontuan hartuz gero.

ZURE AUKERA EKONOMIKOAK KONTUAN HARTZEN BADITUZU, ZEIN IZANGO LITZATEKE AURREKO GALDERAREN ERANTZUNA?



"BESTE BAT" LAUKIA (Erantzuna)

- "BOE edo jabetzan"
- "Ezin dut etxe bat jabetzan hartu"


Ehuneko handiena, %35.3%a, "jabetza" aukeratu du berriro ere, baina gainontzekoen ehunekoak dexente handitu dira. "Alokairuan erosteko aukerarekin" aukerak, %22.1 du orain eta "alokairuan", %17.6a.

Gainerako aukerek ehuneko antzekoa mantentzen dute:

- **BOE % 10.3**
- **BERDIN DIO % 11.8**
- **BESTE % 2,9**

• INKESTAREN EMAITZA OROKORRAK • ETXEBIZITZAZ ALDATU BEHAR DUT (NIRE UDALERRIAN/BESTE UDALERRI BATEAN)
ETXEBIZITZA EZAUGARRIAK

ZEIN ETXEBIZITZA MOTA BILATZEN ARI ZARA?



"BESTE BAT" LAUKIA (Erantzuna)


- "Beheko solairua bakarrik duen familia bakarreko etxebizitza. Solairu gehigarririk gabe "
- "Etxe zahar eraberritua"

Erabiltzaileen gehienak ez du lehentasun finkorik etxebizitza-motari dagokionez; izan ere, %38.2k **"berdin dio"** aukeratu du. Hala ere, erabaki konkretu bat markatu dutenen artean, **"familia bakarreko etxebizitza isolatua"** (% 17.6) edo **"eraikin kolektiboetako etxebizitza, pisuak"** (% 16.2) dira bozkatuenak.

Azter dezagun orain pertsona hauek etxebizitza lortzeko egin dezaketen inbertsioa.

*Jasotako erantzunak aztertu aurretik, honako bi galdera hauek nahitaezkoak ez zirela azpimarratu behar dugu. Hau da, alokairuan bizi nahi dutela argi duten pertsonak ez zuten jabetzako etxebizitza batean inbertitzeari buruzko galderari erantzuteko betebeharririk, eta alderantziz.

ETXEBIZITZA BAT JABETZAN BILATZEN BADUZU, ZURE AUKEREN ARABERA, ZENBAT ORDAINTZEKO PREST EGONGO ZINATEKE?*




• INKESTAREN EMAITZA OROKORRAK • ETXEBIZITZAZ ALDATU BEHAR DUT (NIRE UDALERRIAN/BESTE UDALERRI BATEAN)
ETXEBIZITZA EZAUGARRIAK

"BESTE BAT" LAUKIA (Erantzuna)

- "Zalantzati"
- "Ezin dut erosi"


Etxebizitza bat jabetzan izateko inbertsioari dagokionez, 63 pertsonen erantzuna aztertuko dugu. Kasu honetan, ehunekorik altuena inbertsiorik txikienak du: %**28.6a** prest egongo litzateke **50.000-80.000 €** artean ordaintzeko.

ALOKAIRUKO ETXEBIZITZA BATEN BILA BAZABILTZA, ZURE AUKEREN ARABERA, ZENBAT ORDAINTEKO PREST EGONGO ZINATEKE HILEAN?*




Alokairuko etxebizitza baten hileko inbertsioari dagokionez, 60 erantzun jaso ditugu. % **86.7a** hilean "**300-500 €**" ordaintzeko prest dago.

ZEIN DA BILATZEN ARI ZAREN ETXEAREN GUTXIENENKO TAMAINA?



• INKESTAREN EMAITZA OROKORRAK • ETXEBIZITZAZ ALDATU BEHAR DUT (NIRE UDALERRIAN/BESTE UDALERRI BATEAN)
ETXEBIZITZA EZAUGARRIAK


ZENBAT GELA BEHAR DITU BILA DABILEN ETXEAK?



Etxearen tamainaz zein honek behar dituen gelen kopuruaz hitz egiten badugu, % 35,3k "90-120 m²" bitarteko etxe bat bilatzen du, eta %45,6k "3 logela" nahi ditu bertan.

Jakin dezagun zein den boto gehien jaso dituen extra edo gehigarriak.

ZURE USTEZ, ZER GEHIGARRI DA EZINBESTEKOA, BILATZEN ARI ZAREN ETXEBIZITZAN? (AUKERATU GEHIENEZ 3 AUKERA)



"BESTE BAT" LAUKIA (Erantzuna)

- "Berokuntza"
- "Bertan duintasunez bizi ahal izateko, ez du ez terrazarik ez lorategirik behar".
- "Bat ere ez"
- "Irogailua"
- "Herri barruan benetan uko egiten zaie lorategiari edo baratzeari eta igerilekuari. Garajearekin etxe batzuk daude, baina oraindik ere badaude plazak salgai barbakanan".
- "Baldintza bizigarrietan egon dadila"

Galdera horien ondoren, hauek dira etxebizitza-lehentasanak:

• INKESTAREN EMAITZA OROKORRAK • ETXEBIZITZAZ ALDATU BEHAR DUT (NIRE UDALERRIAN/BESTE UDALERRI BATEAN)
ETXEBIZITZA EZAUGARRIAK



ETXEAREN EGOERA

Berdin dio



ETXEBIZITZAREN ERREGIMENA

Jabetzan



ETXEBIZITZAREN ERREGIMENA

(aukera ekonomikoak)

Jabetzan



ETXEBIZITZA MOTA

Berdin dio



INBERTSIOA JABETZAN

50.000-70.000€



INBERTSIOA ALOKAIRUAN

300-500€



GUTXIENENKO TAMAINA

90-120 M2



LOGELAK

3 Gela




EXTRA

Garaje

GALDERA OROKORRAK

Atal honetan, jasotako erantzun guztiak hartuko ditugu kontuan (119, konkretuki). Etxebizitzarekin lotutako arazo nagusiak zeintzuk diren aztertuko ditugu eta udal-ekimeei, etxebizitza birgaitzeari edo Arabako Errioxako bizilagunek Eusko Jaurlaritzako hainbat etxebizitza-zerbitzuri buruz duten iritzi eta informazioa ere jakingo dugu.

ZURE USTEZ, ZEINTZUK DIRA ZURE UDALERRIKO ETXEBIZITZAREKIN LOTUTAKO ARAZO NAGUSIAK? (GEHIENEZ 4 AUKERA)



"BESTE BAT" LAUKIA (Erantzuna)


- "Ez dago zerbitzu eskaintza nahikorik | Gazteak badoaz"
- "Herri honetako arkitektoak trabak besterik ez ditu jartzen"
- "Jabeek alokatu nahi ez dituzten etxebizitza hutsak"

Jaso ditugun 400 botoekin, hauek dira biztanleriak etxebizitzari dagokionez garrantzitsuentzat jotzen dituen 3 arazoak:

- **Erosketa/alokairu prezioak oso altuak dira - % 62.2 markatuta**
- **Etxe asko hutsik eta egoera txarrean daude - % 61.3 markatuta**
- **Ez dago alokairuko etxebizitzaren eskaintza nahikorik - % 53,8k markatuta**


• INKESTAREN EMAITZA OROKORRAK •
GALDERA OROKORRAK

ZURE USTEZ, LEHEN AUKERATUTAKO ARRAZOIAK AL DIRA JENDEAK ESKUALDEA UZTEKO IZAN DEZAKEEN ARRAZOIA?



%70,6arentzat, lehen aipatutako arrazoiak, eskualdearen eskualde uzteko arrazoi izan daitezke, baina ez dira arazo bakarrak. Ezagutu ditzagun beraz:

"BAI, BAINA EZ BAKARRAK" AUKERATUZ GERO, ZER BESTE ARRAZOI GEHITUKO ZENITUZKE? (GEHIENEZ 3 AUKERA).



• INKESTAREN EMAITZA OROKORRAK •
GALDERA OROKORRAK

"BESTE BAT" LAUKIA (Erantzuna)

- "Hiri-garraio urria"
- "Garraio-zerbitzu txarrak"
- "Desberdintasun ekonomiko gehiegi"
- "Ez dakit"
- "Lanik eza euskaratik"
- "Oso gutxi axola diegu nekazariak eta abeltzainek administrazio honi"
- "Errepideen araudiarekin arazoak daude, eta, kasu askotan, ez dute inolako aldaketarik onartzen, eta horrek esan nahi du etxebizitzak ez direla erosiko eta, beraz, jendea ez dela geratuko".
- "Funtsezko zerbitzuen okerragotzea, osasuna, hezkuntza, garraioa, lan kualifikaturik eza"
- "Aurreko guztiak"


Azken grafikoan jasotako 232 botoak honela banatu dira:

- **Lan-aukera gutxi - % 54,6k markatuta**
- **Zerbitzu eta denda falta - % 52.1k markatuta**
- **Aisialdirik eta kultur jarduerarik eza - % 37.8k markatuta**

Hiri-garraio urria narbarmentzen da "Beste bat" aukeran.

Ezagutu ditzagun orain udalerrri batean behar diren gutxieneko zerbitzuak:

ZURE USTEZ, ZEINTZUK DIRA UDALERRI BATEAN BEHAR DIREN GUTXIENEO ZERBITZUAK?
(GEHIENEZ 5 AUKERA)



"BESTE BAT" LAUKIA (Erantzuna)

- "Denak dira garrantzitsuak"
- "Autobus erabilgarria ibilbide erabilgarriekin. Adibidez, Lezako ospitalera edo Guardiara joan ahal izatea "
- "Garraio publikoa"
- "Mugikortasun publikorako sarbidea, autobus-ordutegi gehiago"
- "Lekualdatze-zerbitzu ona"
- "Benetan beharrezko ikusten ditut guztiak, lan egitetik edo lo egitetik harago bizitza gehiago egon dadin"
- "Ez dakit"

Guztira 529 boto jaso ditugu galdera honetan, eta jasotako erantzunen arabera, hauek dira Arabako Errioxako biztanleek beren udalerrian ezinbestekotzat jotzen dituzten gutxieneko 5 zerbitzuak:


- **Osasun zerbitzua herrian - % 79 markatuta**
- **Janari-denda - % 65,5ek markatuta**
- **Banku-zerbitzua herrian - % 56,3k markatuta**
- **Herriko ostalaritza zerbitzua - % 47,9k markatuta**
- **Hezkuntza eskaintza herrian - % 47,9k markatuta**

Nabarmendu nahi dugu, beste behin ere, inkestan parte hartu dutenek **garraio publikoko zerbitzu on** bat beharrezkoa dela azpimarratzen dutela.

UDALAREN EKIMENAK


Hurrengo atalean, lehen esan dugun bezala, udalek edo administrazio-batzarrek beren herrietako etxebizitzaren inguruan egin ditzaketan ekimenei buruzko galderak planteatu ditugu. Ikus ditzagun emaitzak:

ZURE USTEZ, INTERESGARRIA AL DA UDALAREN WEBGUNEAREN EDO PLATAFORMAREN BIDEZ UDALERRIKO ETXEBIZITZEN ESKAINTZA EZAGUTU AHAL IZATEA?



%93,6k uste du oso interesgarria dela udalak informazio mota hori bere webgunearen bidez iragartzea. Soilik **% 3,7k** ez du egokitzat jotzen, eta **% 2,5ek** "ez daki". Kontuan hartu beharreko datua dela uste dugu.

ZURE USTEZ, ZEIN MOTATAKO EKIMENAK BULTZATU BEHAR DITU UDALAK/ADMINISTRAZIO BATZARRAK ETXEBIZITZARI DAGOKIONEZ? (GEHIENEZ 3 AUKERA)



"BESTE BAT" LAUKIA (Erantzuna)


- "Egoera txarrean dauden etxebizitza zaharrak birgaitzeko beharri buruzko sentsibilizazioa"
- "Etxebizitzak birgaitzeko itzuli beharrik gabeko laguntzak"
- "Hirigintza-arauak benetako beharretara egokitzeko sentsibilizazioa"
- "Etxebizitza erabilgarriei buruzko informazioa"
- "Abandonatutako etxebizitzaren jabetza pribatuaren gaineko esku-hartze publikoa"

• INKESTAREN EMAITZA OROKORRAK • GALDERA OROKORRAK •
UDALAREN EKIMENAK

Beren udalerrietako etxebizitza-arazo nagusiei buruz galdetzen genuenean islatzen zen bezala, agerian geratzen da hutsik eta egoera txarrean dauden etxeen kopuru handia dela biztanleen kezka handienetako bat. Azken galdera honetan jaso ditugun 311 botoak honela geratu dira islatuta:

- "Etxebizitza zaharrak eta egoera txarrean daudenak birgaitzeko beharraz sentsibilizatzea, alokairuan/salmentan jartzeko" - % 81ek markatuta
- "Udalerriko etxebizitza hutsen alokairua sustatzeko sentsibilizazioa" - % 50.4k markatuta
- "Alokairu sozialeko etxebizitzaren sustapenak" - % 45,3 markatuta

BEHARREZKOTZAT JOTZEN DUZU EKIMENIK 2. EGOITZAKO EDO OPORRETAKO ETXEBIZITZEI DAGOKIENEZ? ARGUDIATU ZURE ERANTZUNA:



Ehunekoek erakusten duten bezala, oso iritzi desberdinak daude 2. egoitzetako etxebizitzeari dagokienez. % 28.6k uste du beharrezkoa dela horrelako etxebizitzekin lotutako ekimenen bat garatzea, baina % 34,5ek "EZ" eta % 37k "EZ DAKI".

Erabiltzaileek beren erantzunekin egin dituzten ekarpen guztiekin, honako hauek nabarmentzen ditugu:

- "Jenderik gabeko zein etxebizitza dauden eta alokairu sozial edo aldi baterakoetan gaitu daitezkeen jakitea".
- "2. etxebizitzaren jabeak kontzientziaztea, erabili gabe denboraldi luzeak ematen badituzte arrazoizko prezioetan aloka dezaten".
- "Alokabideri buruzko informazioa".
- "Etxeak zaharberritzea sustatu behar da hemengo pertsonentzat, eta bigarren egoitza bat nahi dutenek horiek eskuratu ahal izatea".

ARGUDIOA ("BEHARREZKOA DA"):

- "Urte osoan alokatzea"
- "Etxebizitzak jenderik gabe daudela eta alokairu sozial edo aldi baterakoetan gaitu daitezkeela jakitea."
- "Alokairua sustatzea, Lapuebla de Labarcako Udalak gaur egun ukatu dituen OHZren hobarien bidez, eta Gasteizko Udalarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko udal kopuruekin parekatzea, gaur egun etxebizitza hutsen programan sartutako etxebizitzetzi % 50 kentzen baitiete".
- "Agian 2. etxebizitzaren jabeak kontzientziatu ahal izango liriateke, erabili gabe denboraldi luzeak ematen badituzte, arrazoizko prezioetan aloka dezaten."
- "Alokairuko etxebizitza sustatzea udazken, negu eta udaberrirako"
- "Interesgarria litzateke despopulazioari aurre egiteko"
- "Opor-etxebizitzaren mantentze-lanen gaineko kontrol handiagoa. Horietako asko irregularitatez beteta daude edo egoera txarrean daude, kasu askotan eraikina partekatzen duten edo alboko eraikinetan bizi diren bizilagunei kalte eginez."
- "Nire herrian badira babes ofizialeko etxebizitzak hutsik dituztenak hemen bizi ez direnean"
- "Udalerraren egungo egoera ikusi."
- "Birgaitzeko laguntzak, oso zaharrak dira, energiari dagokionez ez dira batere eraginkorrak."
- "Udalerrian zerbitzu gehiago izanda, lor dezakegu bigarren bizilekuko etxebizitza horiek denbora gehiago egotea okupatuta urtean zehar."
- "Alokairua sustatzea, asko hutsik baitaude 2. egoitzaren aitzakian"
- "Pertsona batek bigarren etxebizitza bat badu eta aldizka bertara joaten bada, ez da arazoa. Arazoa da 50 pisu edo etxe huts baino gehiago dituzunean, jabeak ez datozela. Eta erortzen ari direla alde batera utzita, aldundiaren bidez alokatzeko aprobetxa litezke, jabeek ordaindu ez diezaioten beldurrik izan ez dezaten. Edo zorua txikitu. Beraz, nik uste dut ez legokeela hainbeste okupa."
- "Nire ustez, oporretako etxeak edo 2. egoitzakoak badira, gutxienez urteko denboraldiren batean erabiltzen dituzte, eta, gehienez ere, herrian aldizka egoten diren pertsonen (adibidez, irakasleak, sasoikako langileak eta abar) zerbitzatuko liekete".
